

Txistorren atzean dauden krimenak

- Toure detektibea albo batera utzita, Jon Arretxek Downen sindromea duen pertsonaia bat jarri du protagonista 'Txerriak eta loreak' nobela beltzean.
- Gasteizen, Arbizon eta Basaurin girotu du kontakizuna idazleak.

Amaia Jimenez Larrea

DONOSTIA— Toure detektibearen 11 eleberririk idatzi ditu orotara Jon Arretxe idazleak. «Ez zaitez tontoa izan, idatzi Toureren liburu gehiago», esaten dio jendeak, sagak lortu duen arrakasta ikusita —liburuak gaztelaniara itzuli dituzte, eta telesail bat ere egin dute nobeletan oinarrituta—. «Ba, ni tontoa izan naiz», adierazi du Arretxek, barre artean. Jakin badaki Toureren liburuak irakurleen artean ongi funtzionatzeko dutela, baina aldatzeko beharra sumatzen zuela aitortu du: «Nobela beltzetik atera gabe, zerbait desberdina egin nahi nuen». Bada, aldaketa horren emaitza izan da *Txerriak eta loreak* liburua. Erein argitaletxearekin kaleratu du.

Arbizun (Nafarroa) hasten da istorioa: txistorrak egiten dituen lantegi batean lapurreta egin

dute. «Gertaera xume batek jende asko mugitu dezake», azaldu du Inazio Mujika Ereineko editoreak. Izan ere, haren hitzetan, txistorra bezalako elementu «arrunt» batek errealitate oso bat astintzea lortuko du. Lapurreta horren atzetik etorriko dira heriotza, mafia eta ustelkeria, besteak beste. Idazleak esan du kosta egin zitzaioela eleberria nola hasi asmatzea —«itsua naiz», gaineratu du—, eta lagun duen idazle kanariar batek eman ziola abiapuntua.

Mujikaren ustez, pertsonaia sare zabala du *Txerriak eta loreak*-ek. Hala ere, bada garrantzi handiagoa duen pertsonaia bat: Zuriñe Ruiz de Gordo. Enkargu bat jasoko du Ruiz de Gordoak; txistorren lapurretarekin lotutakoa. Downen sindromea du protagonistak, eta judoka profesionala izandakoa da. Orain arte beste inon ikusi ez duen protagonista bat sortu nahi izan du Arretxek: «Idazle batek originaltasuna bilatzen du; garai batean Tourerekin bilatu nuen, hain zuzen».

«Kolpe handiko» hasiera duen arren, kontakizunaren erritmoa ez da apaltzen; Ereineko editorearen ustez, «tentsioa progresiboa da». Arretxe: «Oso erritmo bizia du, elkarrizketa asko, umore beltza, bortxakeria handia eta hildako asko». Toureren sagako lanetan kritika sozialari leku nabarmena egiten zion idazleak, baina aitortu du bere liburuaren artean *Txerriak eta loreak* dela kritika sozial gutxiengoa duena. Hori irakurlea dibertitzeko asmoz egin duela esan du, nahiz eta, hala ere, badiren kritika zertzelada batzuk.

Txistorgintzan trebatu

Hiru kokaleku nagusi ditu eleberririk: Basauri (Bizkaia), Gasteiz eta Arbizu (Nafarroa); eta lotura berezia dute hirurek Arretxere-



Jon Arretxe, liburuak aurkezten, Donostian. MAIALEN ANDRES / FOKU



«Oso erritmo bizia du, elkarrizketa asko, umore beltza, bortxakeria handia eta hildako asko»

JON ARRETXE
Idazlea

kin jokatzeko aukera eman dio egileari. Basauriko pertsonaien kasuan, baserritar ingurukoak direnez, bertako euskalkia erabili du —«nahiz eta gaur egun asko entzuten ez den»—. Gasteizko pertsonaia euskara batuan jaso ditu; eta Arbizukoei dagokienez, Sakanako euskararen. Horrek liburuari «freskotasuna eta sinesgarritasuna» emango diola uste du idazleak.

Bere lanean ahalik eta ondoen islatzeko, Arretxek txistorra nola egiten den ikustera joan behar izan du. Arbizuko txistorgile batek lagundu dio horretan; Patxi Goikoetxeak, hain zuzen.

Egileak ez daki Zuriñe Ruiz de Gordoaren pertsonaia zer-nolako erantzuna izango duen irakurleen artean, baina argi du beste liburu batzuetarako materiala eman dezakeela. Tourerekin egin bezala, irakurleen iritziak jaso nahi ditu, haiek gabe ezer ez dela argudiatuta. Arretxe: «Liburua niregandik ateratako zerbait da, baina garrantzitsua da irakurleak gustura irakurtzea». ●

Maddalen Arzallus nagusitu da Xilabaren Ligiko saioan

BERTSOLARITZA— Xilabaren lehen faseko azken saioa Ligin (Zuberoa) jokatu zuten, igandearen, eta, puntu gehien bildurik, Maddalen Arzallus zuzenean sailkatu zen txapelketaren bigarren fasera. Irantz Idoate izan zen bigarren, eta Irati Alcantarilla hirugarren. Aiherran (Nafarroa Beherea) kantatuko du Arzallusek, eta hori izango da bigarren faseko lehen saioa. Hurrengoak hilaren 13an Muskildin (Zuberoa) eta hilaren 21ean Hiriburun (Lapurd) jokatuko dituzte.


Arantza Plazak jantziko dio txapela Bizkaiko irabazleari

BERTSOLARITZA— Abenduaren 20an jokatu dute Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finala, Bilboko Casillan, eta orduan jakingo da irabazlearen izena, baina dagoeneko jakinarazi dute nork jantziko dion txapela: Arantza Plaza Zamorak (Gizaburuaga, Bizkaia, 1958). Bi hamarkadaz baino gehiagor aritu du bertso irakasle ikastetxeetan, eta transmisioari lotutako beste hainbat proiektutan ere hartu du parte. Haren ibilbidea ez ezik, transmisioak duen garrantzia ere aitortu nahi izan du Bizkaiko Bertsolazale Elkarteak.

Angulemako komiki azokaren 2026ko aldia, bertan behera

KOMIKIGINTZA— Datorren urtean ez da egingo Angulemako (Frantzia) komiki jaialdia, antolatzaileek jakinarazi dutenez. 2026ko urtarrilaren 29tik otsailaren 1era egitekoa zen nazioarteko komiki topaketa ospetsua, baina 2007tik azokaren antolatzaile den 9e Art+ enpresak argitaletxei eta bazkideei bidalitako gutun batean jakinarazi die «ezinezkoa» izango dela 35. aldia «bal-dintza egokietan» egitea eta, hortaz, bertan behera utziko dutela. Egileek eta argitaletxeek deituta boikotaren ondotik heldu da erabakia.

SAN TELMO MUSEOA
Asteartetik igandera: 10:00-19:00
www.santelmomuseoa.eus
Gaur, museorako sarrera doakoa da.



Hitzaldia
El derecho a la vivienda. De las palabras a los hechos
Javier Burón
19:00 | Gaztelania
Sarrera librea jarleku guztiz bete arte

STM
San Telmo Museoa